



Gaur Barne Araubide, Giza Baliabide eta Herritarren Segurtasun Arloko zinegotzi eskuordeak honako dekretu hau eman du aditzera hitzez hitz horrela dioena:

BARNE ARAUBIDE, GIZA BALIABIDE ETA HERRITARREN SEGURTASUN ARLOKO ZINEGOTZI ESKUORDEAREN DEKRETUA

Barne Araubide, Giza Baliabide eta Herritarren Segurtasun arloko zinegotzi eskuordeak 2019ko maiatzaren 2an aditzera emandako dekretuan (1123 zk.) xedatu zen bitarteko erregimenean lanpostu bat betetzeko hautaketa-probak deitzea onestea, Administrazio Bereziko Eskalako Azpieskala Teknikoan, Erdi Mailako teknikari klasean, A2 azpitaldean, Berdintasun Teknikari lanpostua betetzeko hain zuzen.

6.1. atalak dioenaren arabera *"Alkatearen dekretuaren bidez hautaketarako epai-mahaiko kideak eta epaimahaia osatu eta lehenengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua zehaztuko dira"*.

Tokiko Erregimenaren Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 85/7 Legearen 21.1.h) artikulua eta gainerako legedi ezgarriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz eta ardura duen teknikoaren oniritziaz, azaroaren 28ko 86/2868 Errege Dekretuaren 172. eta 175. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako

XEDATZEN DUT

Lehenengo.- Onestea hautaketarako epaimahaiaren kideen izendapena, bai eta epaimahaia osatzeko eta lehenengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua ere.

Bigarren.- Honako ebazpen hau Udal honen iragarki elektronikoen taulan argitaratzea, interesatuei jakinaraziz zein diren legeak euren esku jarrita dituen baliabideak; eta espedientea Barne Araubide, Giza Baliabide eta Herritarren Segurtasun arlora itzultzea dagozkion neurri osagarriak har ditzaten.

Barne Araubide, Giza Baliabide eta Herritarren Segurtasun Arloko Zinegotzi Eskuordeak bidali eta sinatu du, Aintzane Urkijo Sagredo Alkate udalburu andreak 2019ko uztailaren 11n sinatu zuen Dekretuan (1663 zk.) emandako eskuordetza erabiliz, Santurtzi Kontzejuaren udaletxean,

inskripzio-zigiluan adierazitako egunean, Herritarren Segurtasun Arloko Funtzionario Arduradunak sinatu eta ontzat emanaz. (*)

Honako Dekretuari buruzko informazio gehiagorako Santurtziko Udalera deitu daiteke, 944205800 telefono zenbakira (luz. 170).

Horrela argitaratzen da dagozkion ondorioetarako, jakinaraziz aipatu ebazpenaren aurka, administrazio-bidean behin betikoa bera, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA jartzeko aukera duzula BI HILEKO epean, beronen jakinarazpena jaso eta biharamunean zenbatzen hasita, Euskal Herriko Auzitegi Nagusitik berari dagokion Administrazio Auzietako epaitegian, Administrazioarekiko Auzi eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 1998/29 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoari eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen 114.c) artikuluari jarraituz.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan adierazitako Administrazioarekiko Auzi Errekursoaren aurretik, aukeran duzu jakinarazi den egintza zehatza egin duen organoari berari BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkeztea HILABETEKO epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Hori guztiari arestian adierazitako Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen 123, 124 eta lege horiekin bat datozen artikuluetan ezarritakoari jarraituz eta zure eskubideak egoki babesteko bidezkotzat jotzen duzun egintza zein errekurtsoa aurkezteko aukera baztertu gabe.

IDAZKARI NAGUSIA

José Ignacio Salazar Aretxalde



(*) Dekretu honek ez du baliorik izango, baldin eta Idazkaritzan dagoen Alkatetzaren Dekretu eta Erabakien Liburuan jasota dagoela adierazten duen zigilua ez badu.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Lehendakaria;

Titularra: Nieves Terán Vergara, Giza Baliabideetako zuzendaria.

Bokalak:

Titularra: Amaia Hoyos García. Gizarte langilea.

Titularra: José Ignacio Herreros Rodriguez. Gizarte Zerbitzuetako teknikaria.

Titularra: Amaia Domingo. Bilboko Udaleko Berdintasun-teknikaria

Titularra: Miren Elixé De Arana de Murua. Diru-bilketa administrazio-unitateko arduraduna.

Idazkaria:

Titularra: Ramón San Juan, Funtzio Publikoko zerbitzu-burua.

PROZESUAREN EGUTEGIA

Epaimahaia osatzea: 2019ko abenduaren 10ean, 12:00ean, Barne Araubide eta Giza Baliabideen Arloan, Casa Torre Jauregian dagoena, Sabino Arana kaleko 5ean, 2. solairua (Santurtzi).

Deialdiaren lehen ariketa egitea: 2019ko abenduaren 17an, 12:00ean, CIFOn, Cueto Auzoan dagoena, zenb. 54 (Santurtzi).

Hautagaiek Nortasun Agiria ekarri beharko dute, edo bestela, Epaimahaiaren ustez, beren nortasuna erabat egiaztatzen duen bestelako agiri bat.